

JARDUEREN TXOSTENA

2006

Irakaskuntza eta Garapen Profesionala

2006ko TXOSTENA

AURKIBIDEA

	Or.
1.- Zerbitzua eta bere jarduerak	3
2.- Irakaskuntza eta Prestakuntza	8
2. 1 Graduatu aurreko Prestakuntza	
2. 2 Graduatu osteko Prestakuntza	
2. 3 Etengabeko Prestakuntza	
3.- Antolaketa profesionala.....	14
4.- Prestakuntza eta Ikerketarako Laguntzak	15
4. 1 Aurkezpen orokorra	
4. 2 Emaidzak laguntza moten arabera	
5.- Ikerkuntzaren aldeko babesa	26
5. 1 Ikerkuntza proiektuetarako laguntzak	
5. 2 Ikerkuntza unitateentzako laguntzak	
5. 3 Ikerkuntza sustatzeko beste zenbait jarduera	
Eranskinak.....	31
Espezialitate kreditatuak	
I. 1. urteko egoiliarrak	
II. Ospitaleetako egoiliarrak	
III. 2006eko I+G-erako laguntzak	

1.- ZERBITZUA ETA BERE JARDUERAK

Aurreko urteetan bezala, hemen aurkezten dugu Irakaskuntza eta Garapen Profesionaleko zerbitzuaren jardueren Memoria, bai prestakuntza eta antolamendu profesionalaren arlokoa eta bai ikerkuntza sanitarioari dagokiona.

Urte ekitaldiaren garapenean eragina izan duten kanpoko inguruabarren artean aurten azpimarratu beharra dago 2003 urtearen amaieran argitaraturiko Osasun Sistema Nazionaleko araudiaren aplikazioak izan dituen efektuak.

- Areagotu egin da gure partaidetza Osasun Sistema Nazionaleko Giza Baliabideen Batzordeko lan hauetan: espezialista premien estimazioa, profesional sanitarioen erregistroa, graduatu osteko irakaskuntzaren alderdi formatiboak, etab.
- Aldaketak egin dira irakaskuntza unitateen kontu ikuskapenen prozesuan, orain Sanitate eta Kontsumo Ministerioko Kalitate Agentziatik zuzentzen delarik.
- Kalitate Agentzian, hain zuzen, izan diren aurrekontu soberakinak direla eta, Autonomia Erkidegoekin hainbat lankidetzaz hitzarmen izenpetzea proposatu da, irakaskuntzaren arloan, gure kasuan arrakasta maila desberdinarekin ebatzi direnak.
- Irakaskuntza unitateen kreditazio prozesuarekin aurrera jarraitu da espezialitate sanitario batzuen ikuspegi berri baten ondorio gisa, eta irakaskuntza baliabide berri batzuen integrazioarekin ebatzi da: Medikuntza Prebentibo eta Osasun Publikoko unitate berria martxan jarritz eta azken ahalegin bat eginez Lan Medikuntzako unitate berriaren aurkezpeneko
- Euskadi mailan, Osakidetzako EEPa I eta II mailetako Garapen Profesionaleko burutzapenari gehitu zaio, lan handi bat egin behar izan delarik antzinako espedienteen bilaketan, prestakuntza eta ikerkuntzako merituen ziurtagiriak emateko.
- Baina batez ere, Eusko Jaurlaritzaren EEParen ondorioak beste kontrako inguruabar multzo bati gehitu zitzaizkion, eta udaren amaieran Etengabeko Prestakuntzako jardueren Kreditazio Unitatearen deuseztapena ekarri zuten eta ez zen antolatu ia urtearen akabera arte.

Aurrekontua

Aurrekontu honetan gauzatu eta konprometitu beharreko partida garrantzitsuenak, alde batera utzita aurreko urteetan konprometituriko partidak, berrikuntza eta ikerkuntza institutuen finantziazio zuzena eta BAME programa estaltzen duen transferentzia handia, honako hauek izan dira:

2006 URTERAKO AURREKONTUA

GASTU ZUZENA

Mila euro

Bilerak, Ikastaroak eta Ebaluazioak	86
Sailarentzako ISAF Laguntzak	38
Irakaskuntza eta Garapen profesionalerako azterketak	43
DEI PUBLIKOETAKO TRANSFERENTZIAK	
Ikasketak Sakontzeko Bekak	128
Ikerlaritzan prestatzeko Bekak	128
Entitateen funtzionamendurako laguntzak	36
Argitalpen periodikoentzako laguntzak	24
Bilerak antolatzeako laguntzak	80
Ikastaroak antolatzeako laguntzak	153
Ikerkuntza Proiektuetarako laguntzak	600
TRANSFERENTZIA BEREZIAK	
Osakidetzari, Bilerak Antolatzeako	48
Osakidetzari, Ikasketak Zabaltzeako	64
Kawa Fundazioari	46

Gehitu egin dira ikerkuntza proiektuen finantzazio zuzenera bideraturiko fondoak eta behin betiko desagertu da ikerkuntza sustatzeko ekintza berezien partida.

Jarduerak

Jarraian laburbildurik aurkezten ditugu baliabide finantzario hauekin gauzatu diren jarduerak, funtsezko ezaugarriak eta berrikuntza garrantzitsuenak azpimarratuz.

Irakaskuntzan, ohiko giza baliabideen eskasiarekin ezinezko izan da esleituriko eginkizunak behar bezala gauzatzea eta graduosteko prestakuntza sistema garatu ahal izatea. Zeuden baliabideak erabiliz, harremanak mantendu ahal izan dira Ospitaleko, Familiako Medikuntzako eta Osasun Mentaleko Irakaskuntza Batzordeekin, finantziario osagarriarekin babestuz. Ministerioan gestionatu dira datorren deialdirako espezialista plazen eskaintza eta irakaskuntza unitateen kreditazioa, BAME azterketak zaindu dira eta beren irakaskuntza unitateen kontu ikuskapen prozesuren bat erregistratu duten zentroetara joan da.

Vitoria-Gasteizko Erizaintza Eskola Unibertsitarioarekiko harremanak mantendu dira eta erizaintzako bi espezialitate hauetako programak koordinatu dira: emagintza eta osasun mentala.

Osakidetzako zegozkien ospitale zentroen babesarekin, irakiar Kurdistaneko mediku espezialisten prestakuntza bisiten bosgarren programa gauzatu da. Oraindik ezagutzen ez ditugun zenbait faktore direla eta, aurtengo egonaldia laburra izan da, deskontrolatua Kawaren aldetik eta, zalantza gabe, desegokia, programaren jarraitasuna eteteko arriskuan geratzen delarik.

Etengabeko Prestakuntzari dagokionez (Etengabeko Garapen Profesionala), jardueren kreditazio agentziak gelditze bat jasan zuen udazkenean. Programa osagarri

bat gauzatzen da ikastaro eta bileren antolamendurako laguntzak emateko, deialdi publikoaren bitartez

Udaren amaieran, etengabeko prestakuntza programa bat proposatu ziguten, Carlos III.a Osasun Institutuan gauzatzeko. Bi atal zeuzkan. Lehendabizikoan, Sanitate Eskola Nazionalako ikastaro sail batean parte hartzea koordinatu zen eta azkenean Osakidetzako 29 profesionalak eta Osasun Saileko 16k parte hartu zuten. Bigarren atala Euskadin emateko ikastaro batzuen finantzazioan zetzan. Bederatzi ikastaro antolatu ziren 2007rako baina bertan behera utzi behar izan ziren, zegokien hitzarmena sinatzeko orduan Ministerioak agertu zituen susmo txarren erruz.

Antolamendu Profesionalaren arloan, Medikuntza Familiar eta Komunitarioko Mediku Espezialista titulua lortzeko bosgarren deialdia koordinatu da, EKOE motako ebaluazioen bitartez. 2005 urteko probak, urte horretan ezin egin izan zirenak, 2006ko martxoan egin ziren eta 2006koak urte horretako azaroaren 11n egin dira.

Pertsonal sanitarioarentzako **Prestakuntza Erakundeei Laguntzak** emateko programa klasikoek programa marko bakar batean jarraitzen dute. Periodikotasunez eguneratzen dira itxita egon behar luketen baina erabakitzeke jarraitzen duten espedienteak eta programaren datu-basea hobetzen lan egiten da. Era berean, berriro iragarri da Ikasketak Sakontzeko **Beken** programa.

Aurrera dihardugu **Ikerkuntza Proiektuentzako Laguntzen** programarekin, ISAF deialditik bereizirik, baina bere emaitzak kontuan edukiz, eta Osakidetzako Ikerketa Unitateak babesten dira, beraien jardueraren finantziazioan parte hartuz Ikastaroentzako Laguntza Programaren eta Programa Hitzarmenaren bitartez. Ikerlari Prestakuntzarako Laguntza eta Beken programa osagarria gauzatzen da.

Jokaera zientifikoetarako, **Interes Sanitarioaren Aintzatespenari** dagokionez, 1987az gero indarrean zegoen deialdiaren aldaketa Agindua argitaratu da. Aintzat hartzeko jardueren mota mugatu da, eta aintzatespenaren kalitate eta segimenduaren baldintzak ezarri dira.

Jardueren zenbakizko datuen laburpena honako hau da:

Irakaskuntza: graduosteko 859 espezialista goren mailako titulaziokoak (BAME, BAFE eta, BAPE) eta 40, erizaintzako espezializazioko bi programen artean, honako hauek atenditu dituztenak: Ospitale Irakaskuntzako 7 Batzordek, FM-ko KM-ko 3 Irakaskuntza Unitatek, Osasun Mentaleko 3 Batzorde Aholkularik eta Erizaintzako 2 Irakaskuntza Unitatek. Berauen lana sustatzeko 24.390 €ko diru laguntzak eman dira.

2005/2006 promozioiko 46 ikasle graduatu dira Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Eskola Unibertsitarioan, batez beste 7,53ko nota lortu dutelarik. 2006/2007 ikasturtean graduaurreko 181 ikasle ari ziren honako profesional hauen ardurapean: denbora beteko 13 irakasle, denbora partzialeko 34, 5 AZP eta 83 tutore irakasle. 11 ikasle geratzen ziren europar titulazioko ENI programa egiten.

Etengabeko Prestakuntza: Profesio sanitarioetako Etengabeko Prestakuntzako 556 jarduera kreditatu dira.

Antolamendu profesionala: 2005 urteko 64 eskatzailek gainditu dute Familiako Medikuz titulaziorako sarrera, EKOE prozeduraren bidez. 2006 urterako, azaroan, 68 eskabide aurkeztu dira.

Prestakuntzarako laguntza indibidualen programak, Osasun Sailaren eta Osakidetzaren artean, 95 beka eman ditu, guztira 162.700 euroko baliokoak.

Prestakuntzarako erakundeentzako laguntzen programak, ikerketarako laguntzak barne hartu gabe, 260 laguntza eman ditu, Osasun Sailaren eta Osakidetzaren artean gestionatuak, guztira 303.750 €ko zenbatekoaz. Laguntza hauekin, bestek beste, 6 profesional elkargoren Etengabeko Prestakuntza finantzatu da, hain zuzen, 47 ikastaro, 38.140 €rekin.

59 ekintza zientifikoren **Interes Sanitarioa** onartu da.

Ikerketaren sustapena. Osasun Sailak 22 laguntza eman ditu ikerketa proiektuetarako, 833.000 €ko zenbatekoaz. ISAF-ak, bere aldetik, egin dituen bi deialdietan, 20 proiektu finantzatu ditu, guztira ia 1.300.000 €ko zenbatekoa jarriz. Osasun Sailak zuzenean parte hartu du 20.000 €rekin Osakidetzako Ikerketa Unitateen finantziazioan.

I + G-rako eman diren laguntza guztietan **11 helegite** tramitatu dira bakar bat ere aintzat hartu ez delarik.

Lanean jarraitzen da bi **datu-base** hauen aldaketa prozesuan: I + G Laguntzena, O38 programa, Sinfo-rekin hitzartua, eta EP-ren Kreditazioena, Q51 programa, GF1ekin hitzartua. Bi aplikazioak intraneten atal bat daukate eskabideen jasotze telematikoa gauzatzeko eta intraneten beste atal bat datu baseen gestioa gauzatzeko. Biak pasatzen dira garapen, proba eta produkzio faseetatik. Bietan ere oso gutxi aurreratu da aurten: Laguntzena, hitzarturiko enpresaren arazoengatik eta, Kreditazioena, denbora luzean geuk behar bezala arduratzerik izan ez dugulako. Urtearen amaieran berriro ekin zaio gaiari, 2007 urtean behin betiko bultzada emateko.

Irakaskuntza Zerbitzuaren eta Garapen Profesionalaren zerbitzu zerrenda **webgunean** mantentzen da Osanet atariaren bitartez.

Giza taldea

Osasun Saileko bulego zentraletatik jarduera hauek bideratu dituen taldeak Plangintza eta Antolamendu Sanitarioko Zuzendaria den **Marisa Arteagoitia González**-en eta Osasun Sailburuordea den **Rafael Cerdán**-en zuzendaritzapean jardundu.

Taldea honako hauek osatu dute:

Txomin Uriarte, Zerbitzuko Arduraduna.

Irakaskuntza eta Prestakuntzan gorabehera asko gertatu dira joan den udatik hona. Uztailaz gero **Javier González** da plazaren titularra eta bertan jardun zuen irailean eta urrian, laneko baja hartu zuen arte. **Marijo Bombín**, urrian egin zen taldekide lan metaketan hitzarmen baten bitartez. **Garbiñe González de San Román**-ek, etengabeko prestakuntzako jardueren kreditazio sistemaren Idazkaritzako arduradun gisa ziharduenak, bere lana utzi zuen irailean gaixotasun larri bategatik. **Angela Romero** bere lanpostutik aldendua gertatu zen, baina berriro itzuli zen azaroaren 7an.

Mikel Echaniz, Antolamendu profesionaleko jardueraz eta Interes Sanitarioaren Aintzatespen gestioaz arduratzen da.

Prestakuntza eta ikerketarako Laguntzetan aritu dira **Karlos M^a Garate**, **M^a Mar Saez de Buruaga** eta **Kristina Senarriaga**, azken hau azarora arte, hil horretan **Begoña Matilla**-k ordezkatu baitzuen.

Lan guztia, noski, Osasun Saileko eta Osakidetzako beste unitate batzuen laguntzarekin gauzatu da. Geure esker hona adierazi nahi diegu kontaktu ohikoenei, horien artean arlo hauetako arduradunak daude: Osakidetzako Etengabeko Prestakuntzako, Irakaskuntzako Batzordeetako, Batzorde Aholkularietako, ikerketako unitateetako, ikerketarako batzordeetako, BIOEF-ekoa, erizaintzako eskolakoa, Osasun Saileko zerbitzu zentraletakoa (Aurrekontuak eta Kontularitza, Araubide Juridikoko Zuzendaritza) eta Osakidetzakoa (Asistentzia Espezializatuko eta Lehen Mailako Asistentziako Zuzendariordetzak), eta ospitaleko zerbitzu erakundeetako, lehen mailako atentziokoa eta atentzio espezifikotako kontaktuak.

Berriro aurkeztu dira Zerbitzuko pertsonalari dagozkion alegazioak, baina ez dira jaso Osasun Sailari aurkeztu zaion Analisi Funtzionalen proposamenen

2.-IRAKASKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

Irakaskuntza eta Prestakuntzaren arloak, batetik Prestakuntzarekin eta, bestetik, antolamendu profesionalarekin loturiko jarduerak garatzen ditu, guk hemen bereizirik analizatuko ditugunak.

2. 1. Graduurreko Prestakuntza

Vitoria-Gasteizko Erizaintza Eskola

Graduurreko eta graduosteko prestakuntza jarduera ohikoez gainera, ENI (European Nursing Initiative) lizentziatura programa amaitzen ari gara.

Instantzia bakoitzeko ikasle kopuruak honako hauek izan dira:

I. taula: EUE ikasleak

GRADUAURREKO IKASTAROAK	Ikastaroa 2006/07
1.a	57
2.a	56
3.a	68
Guztira	181

ENI LIZENTZIATURA	
1.a	0
2.a	0
3.a	0
4.a	11
Guztira	11

Graduosteko ikastaroak

2006 urtearen amaieran guztira 30 ikasle ari ziren “egoera kritikoko pazientearen erizaintzako zainketak” ikastaroa egiten, eskola ikasturte guztian zehar garaturiko beste ikastaro guztiez gainera.

Mediku kurduentzako prestakuntza programa

Mediku kurduak Bizkaiko ospitale zentroetara eginiko bosgarren bisita programari dagokionez, azaroan eta abenduan garatu zen programa. Oraingo honetan hiru medikuk bakarrik parte hartu zuten, espero ziren beste bostak ez baitzuten izan etortzerik.

Unibertsitatea-Sanitatea Hitzarmena

UPV/EHU eta Osasun Sailaren arteko hitzarmenaren lehenbiziko zirriborroa, UPV/EHUko Medikuntza eta Odontologia Fakultateko gobernu taldeak 2005eko apirilean elaboratua jaso eta aztertu zen.

2. 2. Graduosteko Prestakuntza

Medikuak eta beste lizentziadun batzuk.

2003 urteaz gero egiten dugun plaza eskaintzak goranzko joerarekin jarraitzen du, bai ospitaleko espezialitateetan (2006/2007 aldirako igoera %9koa izan da) eta bai erizaintzako espezialitateetan.

Aurten ezabatu egin da iaz ezarri zen Kupo Autonomikoa, eta ondorioz, desagertu egin dira espezialitateetako Kontseilu Nazionalek ezarritako murriztapenak.

2006ko abenduaren 31n zeuden egoiliarren kolektiboa ondoko tauletan laburbiltzen da (eta eranskinetan garatzen da).

II. taula: BAME irakaskuntzaren 2006ko egitura

Ospitaleak	Egoiliarrak	Espezialitate kop.		Tutoreak
		Kreditatuak	Egoiliarrekin	
	BAME, BAPE, BAFE			BAME, BAPE, BAFE
Gurutzeta	239	37	36	38
Donostia	128	34	30	34
Basurto	113	25	24	25
Txagorritxu	67	17	15	17
Galdakao	65	19	19	19
Santiago	26	8	7	8
Institutu Onkologikoa	2	2	1	2
San Eloy	2	1	1	1
Zamudio	6	2	2	2
GUZTIRA	648	145	135	146
	FM eta KOM.	Irak. U.		FM eta KOM.
Irak. U. Bizkaia	110	4	1	54
Irak. U. Gipuzkoa	87	4	1	45
Irak. U. Araba	54	3	1	21
GUZTIRA	251	11	3	120
GUZTIRA	899	156	138	266

III. taula: EAEko egoiliarak 2006 urtean (ospitale eta urteka)

Ospitaleak	Egoiliar kop.					
	1.a	2.a	3.a	4.a	5.a	Guztira
Gurutzeta	64	53	56	52	14	239
Donostia	34	32	28	28	6	128
	28	29	25	26	5	113
Txagorritxu	17	14	16	15	5	67
Galdakao	19	14	14	16	2	65
Santiago	7	6	6	5	2	26
Zamudio	2	2	1	1	-	6
San Eloy	1	1	-	-	-	2
Institutu Onkologikoa	1	1	-	-	-	2
Bizkaiko K eta FM						
Gurutzeta	11	14	15			40
Basurto	6	11	7			24
Galdakao	10	5	13			28
San Eloy	5	8	5			18
Gipuzkoako K eta FM						
Donostia	13	16	17			46
Bidasoa	4	4	3			11
Zumarraga	5	5	5			15
Mendaro	5	5	5			15
Arabako K eta FM						
Txagorritxu	8	11	11			30
Santiago	4	6	6			16
Deba Garaia	1	3	4			8
GUZTIRA	245	240	237	143	34	899

Erizaintzako espezialitateak

Erizaintza Obstetrikiko-Ginekologikoa

2005 urtean erizaintza obstetrikiko-ginekologikoko bi plaza gehiago kreditatu dira. Horrela, lehenbiziko ikasturtean diharduten egoiliarren kopurua 18 da. Bi urteko espezialitatea ikasten diharduten ikasleen guztizko kopurua 34koa da.

Osasun Mentaleko Erizaintza

2006ko abenduan espezialitate hau egiten diharduten ikasleak 10 dira, urtebeteko iraupeneko programan aurreikusi zenaren arabera.

Prestakuntza programen kalitatea

Prestakuntza programen kalitatea sustatzen eta zaintzen dihardugu, azpiegiturak eta irakaskuntza unitateen funtzionamendua babesteko neurriak hartuz eta zuzendaritza organoekin elkarlanean jardunez, batez ere irakaskuntza Kontu Ikuskapenen eta zerbitzu eta espezialitateen Kreditazioen bitartez.

Kontu Ikuskapenei dagokienez, 2005ean, Osasun Ministerioak honako hauei egin dizkie: Basurto, Galdakao, San Eloy eta Gurutzetako Ospitaleko hiru zerbitzuri: Kirurgia kardiobaskularra, Endokrinologia eta Neurokirurgia, Zuzendaritzako teknikari den Vicente Jasaren partaidetzarekin. Jadanik jaso dira hiru ospitaleri dagozkin txosten positiboak, eta hobekuntza plan baten iradokizuna San Eloyrako.

Irakaskuntza unitateen Kreditazio prozesua, LOPS-aren ondorio gisa, Osasun Saileko Plangintza eta Antolamendu Sanitarioko Zuzendaritzaren bitartez egiten da. Urte ekitaldi honetan honako hauek kreditatu dira:

Donostia Ospitaleko Angiologia,
Basurtoko Ospitaleko Nefrologia,
eta beste hiru kreditazio erabakitzeke geratu dira urtearen amaieran.

Euskadiko Medikuntza Prebentibo eta Osasun Publikoko Irakaskuntza Unitatea kreditatu da, 2006 urterako bi egoiliar plaza eskainiz, era egokian esleituak izan direnak.

Era berean, Euskadiko Lan Medikuntzako Irakaskuntza Unitate berria kreditatzen saiatzeko gestioak amaitu dira eta 2006/2007ko deialdirako hainbat plaza eskaini ahal izatea espero da.

IRABAS-en (Irakaskuntza Batzordeen Euskal Sarea) bitartez, tutorentzako prestakuntza ikastaroak ematen jarraitzen dugu, Osakidetzako etengabeko prestakuntza programaren barruan. Tutoreen IV. Topaketan parte hartu dugu, Espezialista Premien planifikazioari buruzko txosten bat aurkeztuz.

Babes ekonomikoa honako honen bidez gauzatzen da:

Irakaskuntza batzordeentzako laguntzak ikastaroen antolaketarako.

Ikastaro eta bileren antolaketarako laguntza deialdi publikoaren barruan esleituak. Guztira 24.390 €ko zenbatekoa transferitu zen eta era honetan banatu zen:

IV. taula: Irakaskuntza Batzordeentzako Laguntzak. 2006

	DIRUZ LAGUNDURIKO IKASTAROAK	EURO
Donostia Ospitalea	5	9.210
Basurtuko Ospitalea	4	3.905
Gurutzetako Ospitalea	13	6.675
Santiago Ospitalea	6	4.600
LAGUNTZAK GUZTIRA	28	24.390
Batez bestekoa	7	6.100

2. 3. Etengabeko Prestakuntza

Profesional Elkargoentzako Laguntzak EP-rako

Deialdi publikoaren bidez ebatzirik, sanitatearen arloko profesional elkargo guztientzat.

V. taula: Elkargoentzako Laguntzak Etengabeko prestakuntzarako. 2006

Elkargoa	Ikastaro kop.	Euro
Gipuzkoako Erizaintza	19	12.080
Bizkaiko Erizaintza	8	8.680
Arabako Erizaintza	1	1.200
Bizkaiko Farmazialariak	14	14.000
Azter. Sani. Fund. (Bizkaiko Med.)	5	4.900
Bizkaiko Psikologoak	1	1.000
Osatzen-.F.K M.-ko Euskal Elkarte	1	240
GUZTIRA	68	51.740
Batez bestekoa	7	5.750

Profesio Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzaren Kreditazioa

Ebaluazio Batzordearen 21 bilera egin dira.

Parte hartu da Lanzaroten ekainean egin ziren Idazkaritza Teknikoko VIII. Jardunaldietan eta irailean Valladoliden egin ziren Idazkaritza Teknikoko IX. Jardunaldietan.

2006 urtean zehar, 613 eskabide jaso dira, 2005 urtearekin alderatuta %4ko gehikuntza suposatzen duena.

VI. taula: EPko jardueren kreditazio eskabideak, 2006 urtean

Kreditatuak	556	90,7 %		
Ukatuak	45	7,3%		
Baztertuak	9	1,5%		
Ez onartuak	3	0,5%		
Jasotakoak guztira	613			

Ezekoa eman zaien jarduera gehienak etengabeko prestakuntzat ezin har daitezkeen graduosteko prestakuntza jarduerak zirelako izan da.

Aurten, jarduera multiprofesionalek suposatu dute aurkezturiko eskabideen kopuru altuena, ezaugarri hori, kasu gehienetan, bi profesio hauetan laburbiltzen bada ere: medikuntza eta erizaintza (%70). Eskabide gehien aurkezten dituen kolektibo profesionala oraindik ere erizaintza da (%29), iazko portzentaje berean mantenduz. Jarraian medikuntza dator, bere jarduera %23ra gehitu duena, eta hirugarren lekuan, aurreko bietatik oso urruti bada ere, fisioterapia dago (%4). Farmaziak aurten murriztu egin du bere jarduera %3raino jaitsiz.

Funtsezko hornitzailea aurten berriz ere Osakidetza izan da, kreditaturiko jardueren ia erdia suposatu duelarik, zehazki %49a, batez eta Lehen Mailako Atentzioko Eskualdeetan izan den jardueren gehikuntza handiagatik. Bigarren lekuan, urruti samar bada ere, Profesional Elkargoak daude (%25). izan dira, biek ere ia jarduera kopuru berdina aurkeztu dutelarik. Arlo klinikoa (zuzeneko atentzioa) izan da berriz ere kreditaturiko aktibitateen zati handiena bereganatu duena profesio guztietan, jarduera anitzdiziplinarrak barne (%83), aurreko urteetako portzentajea nabarmenki gehituz. Arlo ez klinikoan (zeharkakoen) artean kreditatu diren jarduerak batez ere arlo hauetakoak izan dira: ebidentzian oinarrituriko ikerketa-medikuntza (%26) kalitate-gestioa (%24), komunikazio-elkarrizketa klinikoa (%22), prestakuntza (%15), etika-legislazioa (%11) eta estatistika (%2).

Etengabeko Prestakuntzaren Batzordea sortzeko EDaren publikazioaren zain jarraitzen dugu, bere elaborazioan parte hartu baikenuen 2005ean, Lanbide Sanitarioen Antolamendu Legeak eta Osasun Sistema Nazionalaren Kohesio eta Kalitate Legeak agintzen dutena betez.

3.- ANTOLAMENDU PROFESIONALEKO JARDUERAK

3.1. Medikuntza Familiar eta Komunitarioko espezialitatearen salbuespenezko lorpena

2006an egin da laugarren proba, 2005ean iragarritakoa, Medikuntza Familiar eta Komunitarioko Medikuntza Espezialista tituluaren salbuespenezko lorpenerako, 1998ko Dekretuan xedatua dagoenaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegotik aurkeztu ziren 106 lehiakideetatik 64k gaintitu dute ebaketa puntua, 13 ez dira iritsi eta 29 ez dira aurkeztu azterketara.

Era berean, 2006ko azaroan egin da aipatu tituluaren salbuespenezko lorpenerako bosgarren proba, 68 lehiakidek aurkezteko eskubidea zeukatena. Horietako 42k gaintitu dute ebaketa puntua, 6 ez dira iritsi eta 20 ez dira aurkeztu azterketara.

3.2. Ziurtagiriak

Osakidetzako Garapen Profesionaleko espedienteak bete ahal izateko, Etengabeko Prestakuntzagatiko merituen puntuazioan ahalegin handi bat egin behar izan da ikastaro orduen eta ikerketa proiektuetako partaidetzaren balidazioan, askotan oso aspaldiko espedienteak berreskuratzen ahaleginduz.

3.3 Bestelakoak

Esku hartu da Europako Elkarteko eta Hegoamerikako tituluaren homologazio prozesuko hainbat kasu indibidualetan beren eginkizun profesionala Euskadin garatu ahal izan dezaten eta, orobat, erizaintzako espedienteen konbalidazioan Europako Elkartean lan egiteko baliagarri izan daitezten.

4.-PRESTAKUNTZA ETA IKERKETARAKO LAGUNTZAK

4.1. Aurkezpen orokorra

Sanitateko I+G-erako Laguntzen deialdi publikoaren bidezko programak aurreko urteetako ildotik jarraitzen du, hiru deialdi gauzatu direlarik:

- Ikastaroen eta bileren antolaketako jarduera guztiak barne hartzen dituen deialdi bat, edozein dela ere erakunde antolatzailea. Barne hartzen ditu, halaber, entitate zientifikoentzako laguntzak, dela beraien funtzionamendurako, dela publikazio periodikoen argitalpenerako.
- Beste deialdi bat ikerketa proiektuei laguntzeko. Ikerketa anitz diziplina eta anitz zentrotakoa izatea exijitzen da, eta ikerketa sareekiko sintonian egotea.
- Hirugarren deialdi bat, prestakuntza indibidualaren zabalkunderako bekak emateko. Bi modalitate aurkezten ditu: bata ikerlaritarako bokazioen trebatze eta sustatzera bideratua dago eta bestea atzerrian egiteko birziklapen egonaldietara.
- Bestalde, aurrerantzean ere Osakidetzari delegatzen zaio Ikasketak zabaltzeko Laguntzen esleipena eta bere pertsonalaren Bileren Antolaketa.

Programa bi zutoin hauek ditu oinarri: prestakuntza eta ikerketako jarduera guztiak ikuspegi global bakar batean integratzea, eta Etengabeko Prestakuntza profesionalen eguneroko lanera hurbiltzea.

Ezarria dago espedienteen segimendu prozedura, emaitzak edo dokumentazioa aurkezteko epeak iraungi direlako ixten diren unean berean; beraz, ia denak eguneratuak daude.


Ikerketa proiektuentzako laguntzak emateko deialdia dela eta, lehenbiziko aldiz, Euskaditik kanpoko 54 ebaluatzailearen laguntza erabili da eta, normala denez, komunikazio arazoak sortu dira, datozen urte hauetan ebatziz joango garenak.

Ekainean argitaratu zen jazoera zientifikoaren Interes Sanitarioaren Aintzatespena arautzeko Agindua, aurreko araudia, jadanik 20 urte zeuzkana eguneratuz. Izaera eskusiboki formatiboa zeukaten ekintzen irudia desagertzen da, horiek badaukatelako beren kreditazio prozedura gero etengabeko prestakuntzagatiko merituen baremo indibidualei aplika dakiekeena. Ekintzaren izaera zientifikoa ebaluatzen da, babes komertzialaren tratamendu egokia kontrolatzen da eta onarpenean aurreikusitako baldintzen konplimentuaren segimendua ezartzen da.



Osasun Sailak 2005eko aurrekontuaren kargura emaniko I+G-erako Laguntzak 254 izan ziren, 1.197.370 €ko zenbatekoaz, ondoko grafikoetan eta IV. Eranskineko Laburpen Taulan ageri den bezala banakaturik:


I+G Laguntzak 2006an

1) Gizabanakoei:



2) Erakundeek:





VII. Taula: Gauzatze egutegia. 2006

	Deialdia		Ematea	
	Agindua EHAA		Ebazpena EHAA	
Prestakuntza eta Ikerketarako Bekak	21.03.06	24.04.06	22.06.06	04.08.06
Erakundeentzako eta Bilerak Antolatzeko Laguntzak	28.03.06	24.04.06	3.08.06	15.09.06
Ikerketa Proiektuak	4.04.06	24.04.06	14.11.06	15.12.06
Ikasketak Zabaltzeko Bekak Osakidetza	2.05.06	16.06.06	22.12.06	8.02.07
Bileren Antolaketa Osakidetza	23.01.06	23.04.06	10.08.06	10.10.06
Ikerketa Komisionatua OSTEBA	23.05.06	07.06.06	11.09.06	27.10.06

4. 2. Emaidzak laguntza motaren arabera

Datozen orrialde hauetan aurreko tauletan agiri diren datuei buruzko informazio zehatzagoa eskaintzen dugu, laguntza mota bakoitzaren ezaugarri esanguratsuenak aipatuz. Indibidualetatik hasiko gara.

Ikerlaritzarako prestatzeko Beken programak bi modalitate eskaintzen ditu kontuan edukiz ea soldata mantentzen den (laguntzak) ala ez den (bekak). Aurten, ikerlaritzan espezializatzea finantzatzeko plan bakar batzuk hautatu dira, protokolo eta tutoretza sistema on batekin.

Ikasketak Zabaltzeko Bekak funtsean Osakidetzako pertsonalarentzat eskaintzen dira, erakunde honek ematen dituen laguntzei gehitzen zaizkielarik. Osasun Sailak ikastaro bereziak eta atzerriko zentro ospetsuetako egonaldiak finantzatzen ditu.

Elkarte zientifikoentzako eta beste entitate batzuentzako pertsonalaren prestakuntzarako laguntzen deialdi bateratuak aurreko estandarrak mantendu ditu. Ikastaroak antolatzekeo laguntzei dagokienez, hauek profesional elkargoetan eta Osakidetzako Irakaskuntza Batzordeetan kontzentratzen dira, ikastaroz ikastaro zehaztasunez aztertzen direlarik.

Interes Sanitarioaren Aintzatespena gutxitu egin da kantitateari dagokionez, urte eragiketa honen erdi aldean argitaratu zen araudi berriak ezartzen dituen murrizketengatik. Horretarako sortu den ebaluazio batzordeak jazoeren antolatzaileekin komunikatzeko prozedura bat ezarri du, eskabideko datu garrantzitsuenen aurkezpen osoa lortzeko eta aintzatetsi den jazoeraren ezaugarrien ondorengo konplimendurako.

PRESTAKUNTZARAKO SAILEKO BEKAK ETA LAGUNTZAK

A) Ikasketak Zabaltzeko Bekak

- Deialdi agindua: 2006ko martxoak 21 (EHAA 06.04.24)
- Helburua: Atzerrian ikastaroak eta prestakuntza egonaldiak finantzatzea.
- Ebazpena: 2006ko ekainaren 22a (EHAA 06.08.04)

VIII. taula: Ikasketak zabaltzeko Saileko Bekak eta Laguntzak

	Eskabide kop.	Emandakoen kop.	Zenbatekoa Eurotan	Laguntzen batez bestekoa
GUZTIRA	16	5	19.169	3.834

B) Ikerlari gisa prestatzeko Bekak

- Deialdi agindua: 2006ko martxoak 21 (EHAA 06.04.24)
- Helburua: Pertsonal ikerlaria prestatzeko plan indibidualizatuak finantzatzea.
- Ebazpena: Ebazpena: 2006ko ekainaren 22a (EHAA 06.08.04)

VIII. taula: Ikerlari gisa prestatzeko Bekak eta Laguntzak


	Eskabide kop.	Emandakoen kop.	Zenbatekoa Eurotan	Laguntzen batez bestekoa
GUZTIRA	12	5	77.429	15.486

III. Grafikoa: Eboluzio historikoa. Ikerlari gisa prestatzeko Bekak eta Laguntzak

Emandakoen kop.



Zenbatekoa (Mila euro)





IKASKETAK ZABALTZEKO BEKAK (OSAKIDETZA)

- Deialdiaren Ebazpena: 2006ko maiatzak 2 (EHAA 06.06.06)
- Helburua: Pertsonal sanitarioaren prestakuntza plan indibidualizatuak finantzatzea.
- Ebazpena: 06.12.06 (EHAA 07.02.07)

IX. taula: Ikasketak Zabaltzeko Osakidetzako Bekak

	Eskabide kop.	Emandakoen kop.	Zenbatekoa Eurotan	Laguntzen batez bestekoa
GUZTIRA	123	85	66.113	778

IV. Grafikoa: IZB-en Eboluzio historikoa (Osakidetzak)



ENTITATEENTZAKO LAGUNTZAK BEREN FUNTZIONAMENDURAKO ETA PRESTAKUNTZA JARDUERAK ANTOLATZEKO

Barne hartzen ditu: Entitateentzako Laguntzak (bere bi modalitateetan, hots, Funtzionamendua eta Argitalpenak) eta Bilerak eta Ikastaroak antolatzeako Laguntzak. Barne hartzen dira, halaber, Profesional Elkargoek, Irakaskuntza Batzordeek eta Ikerketa Unitateek antolaturiko ikastaroetarako laguntza espezifikoak, Irakaskuntzaren eta Ikerketaren aldeko Babesaren ataletan iruzkintzen direnak, hurrenez hurren.


A) ENTITATEEN ERAKETARAKO EDO FUNTZIONAMENDURAKO LAGUNTZAK

- Deialdi Agindua: 2006ko martxoak 28 (EHAA 06.04.24)
- Helburua: Babesa ematea prestakuntza eta eguneratze teknikoa eskaintzen duten eta/edo ikerketa sanitarioa sustatzen duten izaera zientifiko sanitarioko entitateei.
- Ebazpena: 2006ko abuztuak 3 (EHAA 06.09.15)


- Eskabide kop.: 16
- Emandako Laguntzak: 12 (%75)
- Gastua: 35.200 €
- Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 2.100 €(handiena 5.800 €eta txikiena 900 €)
- Tipologia: Espezialitateetako profesional elkarteak (5), Beste batzuk (7)
- Eraketa (1); Funtzionamendua (11)

V. Grafikoa: Entitateentzako Laguntzen eboluzio historikoa

Emandakoen kop.




Zenbatekoa (Mila eurotan)



B) PUBLIKAZIO PERIODIKOAK ARGITARATZEKO LAGUNTZAK

- Deialdi Agindua: 2006ko martxoak 28 (EHAA 06.04.24)
 - Helburua: Publikazio zientifiko periodikoen argitalpena sustatzea.
 - Ebazpena: 2006ko abuztuak 3 (EHAA 06.09.15)
-
- Eskabide kop.: 13
 - Emandako Laguntzak: 12 (%93)
 - Gastua: 36.000 €
 - Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 3.000 €(handiena 14.500 € txikiena 300 €)

VI. Grafikoa: Argitalpen Periodikoentzako Laguntzen eboluzio historikoa



C) BILERA ETA IKASTAROEN ANTOLAKETARAKO LAGUNTZAK

- Helburua: Informazioaren eta ezagutza zientifikoaren trukearen garapena eta hobekuntza, horretarako, bileren eta ikastaroen finantziakzioa babestuz. Osakidetzak jarritako laguntzekin osatzen da.

Osasun Saitetik Osakidetzari EZ dagozkien erakundeei

- Deialdi Agindua: 2006ko martxoak 28 (EHAA 06.04.24)
- Ebazpena: 2006ko abuztuak 3 (EHAA 06.09.15)

A) Bilerak

- Eskabide kop.: 36
- Emandako Laguntzak: 15 (%42)
- Gastua: 55.400 €
- Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 3.690 € (handiena 9.000 € eta txikiena 900 €)


B) Ikastaroak

- Eskabide kop.: 160
- Emandako Laguntzak: 97 (%60)
- Gastua: 76.630 €
- Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 800 € (handiena 2.404 € eta txikiena 230 €)

VII. Grafikoa: Osasun Sailak Bilerak eta Ikastaroak Antolatzeko emaniko Laguntzen Eboluzio Historikoa


Bileretarako Laguntzen Eboluzioa

Emandakoen kop.




Ikastaroetarako Laguntzen Eboluzioa


Emandakoen kop.



Bileretarako Zenbatekoa (Mila eurotan)



Ikastaroetarako Zenbatekoa (Mila eurotan)



Osakidetzak bere zentroei

- Deialdiaren Ebazpena: 2006ko urtarrilak 23 (EHAA 06.04.23)
- Ebazpena: 2006ko abuztuak 10 (EHAA 06.10.10)

A) Bilerak

- Eskabide kop.: 2
- Emandako Laguntzak: 0)
- Gastua: 0 €
- Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: %0


B) Ikastaroak

- Eskabide kop.: 37
- Emandako Laguntzak: 28 (%76)
- Gastua: 24.390 €
- Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 870 € (handiena 5.200 € eta txikiena 301 €)

VIII. Grafikoa: Bilerak eta Ikastaroetarako Osakidetzak emaniko Laguntzen Eboluzio historikoa


Bileretarako Laguntzen Eboluzioa

Emandakoen kop.




Ikastaroetarako Laguntzen Eboluzioa


Emandakoen kop.



Bileretarako Zenbatekoa (Mila eurotan)



Ikastaroetarako Zenbatekoa (Mila eurotan)



EKINTZA ZIENTIFIKOETARAKO INTERES SANITARIOAREN EZAGUTZA (ISE).

- Deialdi Agindua: 2006ko maiatzak 16 1(EHAA 06.06.09)
- Eskabide kop.: 53
- Emandakoak: 41 (%77)
- Mota: Bilerak: 38 Ikastaroak: 3

IX. grafikoa: ISE-aren Eboluzio historikoa



BIDERATURIKO ERREKURTSOAK

Emaniko laguntzen aurka aurkeztu diren errekurtsuak, eta 2006an bideratu direnak, honako hauek izan dira:

	Aintzat hartuak	Ukatuak	Guztira
Ikerketa Proiektuak	0	6	6
Bekak	0	1	1
Bilerak	0	4	4
GUZTIRA	0	11	11

5. IKERKETARENTZAKO BABESA

Azken atal honetan analizatuko ditugu unitate honek ikerketa sanitarioa sustatzeko gauzatzen dituen jarduerak. Ikerketa, gure sistema sanitarioan, munduko gainerako lekuetan egiten denarekin lotua, eta zalantza gabe populazioaren osasun premiei erantzutera bideratua, Bioef-en (Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Euskal Institutua) bitartez gauzatzen da. Urte honetan, ikerketaren babeserako gure hiru ildo nagusiak honako hauek izan dira:

5.1 Ikerketa Proiektuentzako Laguntzak dira instrumentu bat bateko eta zuzenena.

Jarraian xehetasun handiagoaz deskribatuko ditugu 2006 urteko ikerketa proiektuei laguntzeko ebazpenen emaitzak, bai Osasun Sailekoak eta bai gainerako deialdi hurbilenetakoak.

1. Osasun Sailaren Laguntzak

◆ Ikerketa Sanitarioa

- Deialdi Agindua: 2006ko apirilak 4 (EHAA 06.04.24)
- Helburua: Ikerketa Proiektu anitz diziplinatako eta anitz zentrotakoak finantzatzea
- Ebazpena: 2006ko azaroak 14 15 (EHAA 06.12.15)
- Eskabide kop. guztira: 73
- Emandako Laguntzak: 22 (%30)
- Gastua: 833.031 €
- Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 37.865 €(handiena 79.300 €eta txikiena 5.820 €)
- Esklusiboki finantzatuak: 21. ISF-arekin erdi bana finantzatuak (1)
- Iraupena: bi urtekoa (4) eta hiru urtekoa (18)
- Banaketa, zentroen arabera:
 - Donostia O. (5)
 - Galdakaoko O. (1)
 - Santiago O. (1)
 - Txagorritxuko O. (1)
 - Gurutzetako O. (5)
 - Zamudioko O
 - Gipuzkoar Mendebaldeko Eskualdea (1)
 - Vitoria-Gasteizko Erizaintza Eskola (1)
 - UPV/EHU (2)
 - Zentro pribatuak (4)

2. ISF-aren Laguntzak

◆ Bi deialdi: Proiektuak eta Teknologien Ebaluazioa

- Proiektuetarako Deialdiaren Ebazpena: 2006ko otsailak 7 (BOE 2006.02.24)
- Teknologien Ebaluaziorako Deialdiaren Ebazpena: 2006ko martxoak 31 (BOE 2006.04.25)
- Emandako Laguntzak: 20
- Zenbatekoa Guztira (% 19a barne): 1.273.714,97 €
- Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 36.690 € (handiena 174.240 € eta txikiena 4.840 €)
- Banaketa zentroyen arabera:
 - Gurutzetako O. (4)
 - Donostia O. (4)
 - Galdakaoko O. (5)
 - Santiago O (1)
 - Txagorritxuko O. (4)
 - Santiago O. (1)
 - Basurtoko O. (2)
 - Osasun Saila (4)


2. Ikerketa Komisionatua (OSTEBA)

- Deialdi Agindua: 2006ko maiatzak 23 (EHAA 06.06.07)
- Ebazpena: 2006ko irailak 11 (EHAA 06.10.27)
- Helburua: Ikerketa egitea teknologia sanitarioen eta zerbitzu sanitarioen ebaluazioari buruzko hamahiru gaien gainean.
- Eskabide kop. guztira: 11
- Emandako Laguntzak: 9
- Gastua: 188.840 €
- Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 21.000 € (handiena 43.700 € eta txikiena 8.600 €)
- Iraupena: urtebetekoa (7) eta bi urtekoa (2)
- Banaketa, zentroyen arabera:
 - Donostia O. (3)
 - Basurtoko O. (1)
 - Gurutzetako O. (1)
 - Galdakaoko O. (1)
 - Txagorritxuko O. (1)
 - Gipuzkoar Mendebaldeko Eskualdea (1)
 - Osasun Saila (1)


X. grafikoa: **Proiektuetarako Laguntzen Eboluzio historikoa**

Osasun Sailak emandako Laguntzak

Emandakoen kop.




Zenbatekoa (Mila eurotan)




ISF-ak emandako Laguntzak

Emandakoen kop.



Zenbatekoa (Mila eurotan)



5.2 Ikerketa Unitateentzako Laguntzak

Harremanetan jarraitzen da Ikerketaren Babeserako Unitateekin, batez ere, Osasun Sailak I+G-erako laguntzak emateko egiten duen urteroko deialdiaren testuinguruan, euren iritzia ezagutzeko eta egiten dituzten iradokizunak entzuteko.

Osasun Sailak unitate hauek finantzatzeko eman duen laguntza bi bidetatik etorri da:

Prestakuntza jarduerak, ikastaroak antolatzeko entitateentzako laguntza programaren bitartez eskatzen dira. Aurtengo emaitzak honako hauek izan dira:

Donostia O.-eko IU ikastaro 1	5.200 €
-------------------------------	---------

Galdakao eta Gurutzetako Ospitaletako aholkularitza estatistikoa, UPV/EHU-ko Matematika Aplikatuko Fakultatearekin hitzartua, ospitale bakoitzeko programa-hitzarmenaren bidez finantzatzen da. 2006ko zenbatekoak honako hauek izan dira:

Gurutzetako Ospitalea	29.910 €
Galdakaoko Ospitalea	17.598 €

IU-ek garatzen duten ikerketaren produkzio eta zabalkundeko gainerako jardueren finantziazioa ere unitatea hierarkikoki dagokion zentroko Hitzarmen-Programaren bitartez egiten da. Baina 2006ko H-Pen finantzazioan, Irakaskuntza eta Ikerketarako partidak kontzeptu berean barne hartuak daude eta tratamendu desberdina eman zaie Ospitale bakoitzean.

Gurutzetako Ospitalean partida bateratu bat dago Irakaskuntza eta Ikerketako “Programa Blokearen” kapituluan. 1.032.944 €ko zenbatekoaz hornitua. Basurtoko Ospitalean ere tratamendua berdina da. “Irakaskuntza eta Ikerketa” partida 1.128.955 €koa da. Ez Galdakaoko Ospitalean eta ez Santiago Ospitalean ez dago “Irakaskuntza eta Ikerketa”ra bideraturiko partidarik.

Txagorritxuko Ospitalean kapitulu espezifiko bat dago “Ikerketa”rako, bi partidarekin:

Ikerketa Esperimentaleko Unitatea	63.252 €
Ikerketa Kliniko Epidemiologikoko Unitatea	77.452 €

Donostia Ospitalean, “!Programa Blokea” kapituluan bost partida desberdin daude Ikerketarako:

– Ikerketa Esperimentaleko Unitatea:	327.262 €
– Ikerketaren Sustapenerako Unitatea:	223.513 €
– Segimendu epidemiologikoa:	65.104
– Genetika Molekularra	301.810
– Osasun Planeko ikerketen babesa	19.000

2007rako Zerbitzu Kontratazioen arauetan Irakaskuntza eta Ikerketa kontzeptu berezietan ager daitezela eskatu da.

5.3 Ikerketaren Sustapeneko beste jarduera batzuk

Ikerketaren Sustapeneko beste jarduera batzuk gauzatzen dira, hein handi batean, Bioef- en lana babestuz, Osasun Sailak finantzaturiko proiektuen gestio ekonomikoan parte hartzeaz gainera. Zerbitzuak garaturiko jarduera espezifikoaren artean, azpimarratzekoak dira Osasun Saileko I+G-eko Eustat-erako estatistika ofizialaren elaborazioa, eta Osakidetzako zentroi eskainiriko laguntza aipatu estatistika egiteko.

Ikerketaren finantziadura zuzenean bideraturiko guztizko zenbatekoari dagokionez, nabarmenki gehitu da, %32raino, aurreko urtearekin alderatuz, Osasun Sailak ikerketa proiektuentzat eman duen zenbatekoa 835.000 €ra iritsi delarik. (Alderantziz, ISF-aren deialdien bitartez Osasun Ministerioak nabarmenki murriztu du aurreko urtean emaniko zenbatekoa, 1.274.000 €tan geratu baita). Osasun Sailaren aldetik proiektuen finantzazioan izan den gorakada askoz ere handiagoa izan da ikerketarentzat eman diren laguntza zuzen eta zeharkakoek jasan dituzten aldaketak baino, gorabehera horiek konpentsatuak geratu direlarik. Adibidez, Ikerketa Unitateen kofinantziarioak 22.000 € suposatu ditu, ikerlari gisa prestatzeko beka eta laguntzen programa ia berdina mantendu da (77.000 €); IZB-aren %50a, estimazioen arabera, 10.000 €ra iristen da; bilera zientifikoaren antolaketarako (52.000 €) eta entitateei laguntzeko programaren %50a, estimazioen arabera 37.000 €koa izan da. Oro har, baieztatu daiteke Osasun Sailak, kanpoko finantziario kontzeptuan, milioi bat eurotik gora jarri dituela (1.033.000 €).

**I. Eranskina: EAEko OSPITALEETAKO IRAKASKUNTZA KREDITAZIOA.
2006 URTEA**

ESPEZIALITATEA	TXAGORRI	SANTIAG	DONOSTI	GURUTZ	BASURTO	GALDAKA	S ELOY	ZAMUD	IONK	GUZTI
ALERGOLOGIA		1		1					2	
A KLINIKOAK	2		2	2		1			7	
A PATOLOGIKOA	1		1	2	1				5	
ANES. ERREAN.	3		3	10	5	3			24	
ANG. ETA K. BASK.						1			1	
AP DIGESTIBOA	1		2	3	1	1			8	
BIOKIMIKA			1		2				3	
KARDIOLOGIA	1			2	3	1			7	
K KARDIOBAS				1					1	
K. GEN-AP. DIG	1	1	3	2	1	1			9	
K MAXILOFAZ.				1					1	
K. ORTO. TRAUMA	1	1	2	4	2	1			11	
K PEDIATRIKOA			1	1					2	
K PLASTIKOA			1	1					2	
K TORAZIKOA			1	1					2	
DERMATOL.			1	2					3	
ENDOKRINOL.				2	1				3	
F. OSPIT.	2		2	2	2	2			10	
FARMAZ. KLIN										
GERIATRIA										
HEMATOLOGIA	1		2	2					5	
INMUNOLOGIA			1						1	
MED. FKA eta ERREH			1	2	1				4	
MED INTENTSI	1	1	2	2		1			7	
BARNE MED	2	1	4	2	5	1			15	
MED. NUKLEAR				2					2	
MED. PREB				2					2	
LAN MEDIK.	2		2	4					8	
MIKROBIOLOG			2	1	2				5	
NEFROLOGIA			1	2	1	1			5	
NEUMOLOGIA	1	1	1	2	1	1			7	
NEUROKIRUR			1	1	1				3	
NEUROFISIOLOG	1			2					3	
NEUROLOGIA			1	2	1	1			5	
OBST. eta GINEK	2		2	4	1				9	
OFTALMOLOG			1	2	1	1	1		6	
ONKOL MED	1		1	2					4	1
ONKL ERRRAD			1	1					2	1
ORL.			1	1	2	1			5	
PEDIATRIA	2		4	10	4				20	
PSIKOL. KLINIK.		1	1		1	1		1	5	
PSIKIATRIA		2	1	1	2	1		2	9	
ERRADIODIAGN	1		3	3	2	1			10	
ERRADIOFARMAZIA										
ERRADIOFIS. OSP.										
ERREUMATOLOG			1	1	1				3	
UROLOGIA			1	1	1	1			4	
PLAZAK GUZTIRA	26	9	55	89	45	22	1	3	250	2
ESPEZIAL. GUZTIRA	18	8	35	38	25	19	1	2	41	2

(*) Irakaskuntza Unitate berriaren kreditazioa bideratu da, eta indarrean egoten hasiko da 2006/2007ko deialditik aurrera.

**MEDIKUNTZA FAMILIAR ETA KOMUNITARIOKO UNITATEEN
KREDITAZIOA. 2006 URTEA**

IRAKAS. UNIT.	ZONA	OSPITALEAK	OSASUN ZENTROAK	PLAZA KREDIT.
Araba	I. Zona	Txagorritxu	Sansomendi Abetxuko Habana San Martin Zaramaga	14
	II. Zona	Santiago	Santiago-Alde Zaharra Aranbizkarra Olagibel	7
	III. Zona	Deba Garaia	Arrasate-Mondragon Oñati	6
GUZTIRA ARABA				27
Gipuzkoa	I. Zona	Donostia	Billabona Andoain Alza Tolosa Lasarte Beraun Pasai San Pedro Zumaia Zarautz	21
	III. Zona	Bidasoa	Dumboa Irun Zentroa	6
	IV. Zona	Zumarraga	Ordizia Azpeitia Zumarraga Legazpi	6
	V. Zona	Mendaro	Ermua Elgoibar Eibar	6
GUZTIRA GIPUZKOA				39
Bizkaia	I. Zona	Gurutzeta	Ortuella Rekaldeberri Algorta Erandio Txoriherri Santurtzi Mamariga	22
	II. Zona	Galdakao	Galdakao Ariz Matiena Kareaga	16
	III. Zona	San Eloy	Kueto Lutxana	7
	IV. Zona	Basurtu	Otxarkoaga Deusto San Ignacio Albia	9
GUZTIRA BIZKAIA				54
GUZTIRA EAE				120

ERIZAINZAKO IRAKASKUNTZA UNITATEEN KREDITAZIOA
2006/12/31

ERIZAINZTA OBSTETRIKO-GINEKOLOGIKOA (EMAGINAK)

IRAKAS. UNITATEA	OSPITALEAK	OSASUN ZENTROA	PLA. KREDIT.
ARABA	TXAGORRITXU O.	San Martin Osasun Zentroa	2
		Lakuabizkarrako Osasun Zentroa Santiago Osasun Zentroa	
ARABA GUZTIRA			2
GIPUZKOA	DONOSTIA O.	Dumboa Osasun Zentroa	6
		Billabonako Osasun Zentroa Andoingo Osasun Zentroa Lasarte-Urribil-Urrietako Osasun Zentroa 1. Zona: Donostialdeako Osasun Zentroa 2. Zona: Ondarretako Osasun Zentroa 3. Zona Zarautz-Orio-Aiako Osasun Zentroa Hernani-Astigarragako Osasun Zentroa Lezo-Oiartzun Osasun Zentroa	
GIPUZKOA GUZTIRA			6
BIZKAIA	GURUTZETAKO O.	Derioko Osasun Zentroa Ortuellako Osasun Zentroa Errekaldeko Osasun Zentroa Txurdinagako Osasun Zentroa Barakaldoko Osasun Zentroa Laudioko Osasun Zentroa Galdakaoko Osasun Zentroa	4
	BASURTOKO O.	Etxaniz Suhiltzaileako Osasun Zentroa Santutxuko Osasun Zentroa Begoña/Zurbarango Osasun Zentroa San Inazio/Deustoko Osasun Zentroa Uribe Eskualdeko Osasun Zentroa Leioako Osasun Zentroa	
BIZKAIA GUZTIRA			4
EAE GUZTIRA			18

OSASUN MENTALEKO ERIZAINZTA

IRAKAS. UNITATEA	PSIKIATRIKOAK	OSASUN MENTALEKO ZENTROAK	BITARTEKO BALIABIDEAK	PLAZA KREDIT.
ARABA	SANTIAGO O.	San Martin O.M.Z.	Psikiatriako Eguneko Osp. (Angulema kalea) Arabako Osp. Psikiatrikoa (egonaldi luze eta ertaina) Erreha. Komunitarioko Zentroa (Reyes Católicos kalea) Toxikomanien Tratamenduko Zentroa Alkoholismo Zerbitzua (akutuak eta kronikoak)	12
		Fernández de Leceta O.M.Z. Aranbizkarra II. O.M.Z.		
ARABA GUZTIRA				12
BIZKAIA	ZAMUDIOKO O	Ajuriagerra O.M.Z.	Barakaldoko Eguneko Osp. (Errehabilitazioa) Erandiaoko Eguneko Osp. (Errehabilitazioa) Zamudioko Eguneko Osp. (Errehabilitazioa) 2 Zamudioko Eguneko Osp. (Ertain-Luze)	6
		Sestaoko O.M.Z. Basauri-Galdakaoko O.Z. Durangoko O.Z. Ajuriaguerra O.M.Z. Sestaoko O.M.Z. Basauri-Galdakaoko O.Z.		
BIZKAIA GUZTIRA				6
EAE GUZTIRA				18

II. Eranskina: Egoi-1 EAE. 2006 URTEA

OSPITALEA	Gurutz	Donostia	Basurto	Txago	Galdak	Santiag	Zamudio	S.Eloy	I.Onkol	Beste*	GUZTIRA
ALERGOLOGIA	1					1					2
ANALISI KLINIKOAK		1			1						2
ANATOMIA PATOLOGIKOA	1		1	1							3
ANESTESIA ETA ERREANI.	8	3	5	3	3						22
ANGIOLOGIA ETA K. BASKULARRA					1						1
APARATU DIGESTIBOA	1	1	1								3
BIOKIMIKA											
KARDIOLOGIA	2	1	1	1	1	1					7
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA	2		2	1	1						6
KIRURGIA OROKOR ETA AP DIGESTIBOA	1										1
KIRURGIA MAXILOFAZIALA	1										1
KIRUR. ORTO ETA TRAUMA	4	2	2	1	1	1					11
KIRURGIA PEDIATRIKOA											
KIRURGIA PLASTIKOA	1	1									2
KIRURGIA TORAZIKOA	1										1
DERMATOLOGIA	2	1									3
ENDOKRINOLOGIA	1		1								2
OSPITALE FARMAZIA	1	1		1	1						4
HEMATOLOGIA	1	1									2
INMUNOLOGIA											
MED. FAMILIAR ETA KOM.	11	13	6	8	10	4		5		15	72
MEDIKUNTZA INTENTSIBOA	1	1									2
BARNE MEDIKUNTZA	1	1		1	1						4
MEDIKUNTZA NUKLEARRA	2	2	1	1	1	1					8
MEDIKUNTZA PREBENTIBOA	1										1
MIKROBIOLOGIA	2										2
NEFROLOGIA	1										1
PNEUMOLOGIA					1						1
NEUROKIRURGIA	1				1						2
NEUROFISIOLOGIA	1	1	1								3
NEUROLOGIA	1			1							2
OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA	2	1	1								4
OFTALMOLOGIA	4	2	1	2							9
ONKOLOGIA MEDIKOA	2	1	1		1			1			6
ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKOA	2	1		1							4
OTORRINOLARINGOLOGIA		1							1		2
PEDIATRIA		1	1		1						3
PSIKOLOGIA KLINIKOA	10	4	4	2							20
PSIKIATRIA		1			1	1	1				4
ERRADIODIAGNOSTIKOA	1	1	1		1	2	1				7
ERREHABILITAZIOA	3	3	2	1	1						10
ERREUMATOLOGIA			1								1
UROLOGIA	1	1	1		1						4
GUZTIRA	75	47	34	25	29	11	2	6	1	15	245

* Besteak:

- Bidasoa Ospitalea: F eta KMko 4 egoiliar
- Zumarragako Ospitalea: F eta KMko 5 egoiliar
- Mendaroko Ospitalea: F eta KMko 5 egoiliar
- Deba Garaiko Ospitalea: F eta KMko 3 egoiliar

III. Eranskina: EAEko 2006eko EGOILIARRAK
(espezialitate eta urteka)

ESPEZIALITATEA	BAME 1	BAME 2	BAME 3	BAME 4	BAME 5	GUZTIRA
3 URTEKO ESPEZIALITATEA	76	91	91			258
FAMILIA ETA KOMUNIT. MED.	72	88	91			251
PSIKOLOGIA KLINIKOA	4	3				7
4 URTEKO ESPEZIALITATEA	120	111	109	104		
ALERGOLOGIA	2	1	2	1		6
ANALISI KLINIKOAK	2	1	1	1		5
ANATOMIA PATOLOGIKOA	3	2	1	2		8
ANESTESIA ETA ERREANIMA.	22	20	20	20		82
APARATU DIGESTIBOA	3	4	3	5		15
BIOKIMIKA						
DERMATOLOGIA	3	1	2	1		7
ENDOKRINOLOGIA	2	2	2	2		8
OSPITALE FARMAZIA	4	4	5	3		16
FARMAKOLOGIA KLINIKOA	Ez kreditazioa					
GERIATRIA	Ez kreditazioa					
HEMATOLOGIA	2	1	2	1		6
INMUNOLOGIA		1				1
MEDIKUNTZA NUCLEARRA	2	3	3	2		10
MEDIKUNTZA PREBENTIBOA	1					1
MIKROBIOLOGIA	2		1	1		4
NEFROLOGIA	1	1	1	2		5
PNEUMOLOGIA	1	2	1	1		5
NEUROFISIOLOGIA	2	2	2	2		8
NEUROLOGIA	2		1	1		4
OBSTETRIZIA ETA GINECOLOG	4	4	4	4		16
OFTALMOLOGIA	9	8	8	8		33
ONKOLOGIA MEDIKOA	6	6	5	4		21
ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIK	4	4	4	4		16
OTORRINOLARINGOLOGIA	2	2	1	1		6
PEDIATRIA	3	3	2	2		10
PSIKIATRIA	20	20	20	20		80
ERRADIODIAGNOSTIKOA	7	8	7	7		29
ERREHABILITAZIOA	10	10	10	9		39
ERREUMATOLOGIA	1	1	1			3
5 URTEKO ESPEZIALITATEA	49	38	37	39	34	
ANGIOLOGIA ETA KIR. BASK	1	1	1	1		4
KARDIOLOGIA	6	5	6	5	6	28
KIRURGIA KARDIOBASKULARR	1	1				2
KIRURGIA ORO. ETA AP. DIGES	7	3	2	5	4	21
KIRURGIA MAXILOFAZIALA	1	1	1		1	4
KIRURGIA PEDIATRIKOA	11	11	11	10	9	52
KIRURGIA PLASTIKOA						
KIRURGIA TORAZIKOA	2	2	2	2	2	10
MEDIKUNTZA INTENTSIBOA	1	1	1	1	1	5
BARNE MEDIKUNTZA	4	3	3	4	4	18
NEUROKIRURGIA	8	6	8	8	5	35
TRAUMATOLOGIA	3	2	1	1	1	8
UROLOGIA	4	2	1	2	1	10
ESPEZ. SAILKATUAK GUZTIRA	173	152	146	143	34	648
FAMIL MEDIKUN. GUZTIRA	72	88	91			251
EGOILIARRAK GUZTIRA	245	240	237	143	34	899

IV. Eranskina: I+G LAGUNTZAK 2005ean

Modalitatea	Emandakoak	Eskabide kop.	Estaldura	Zenbatekoa €	Batez beste €
LAGUNTZA INDIBIDUALAK					
Ikasketak Zabaltzeko Bekak	5	16	31%	19.169	3.830
Ikerlaritzan prestatzeko Bekak	5	12	42%	77.429	15.490
Ikasketak Zabaltzeko Osakidetzaren Bekak	85	123	69%	66.113	780
ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZAK					
Erakundeen Funtzionamendua	12	16	75%	35.200	2.930
Argitalpen Periodikoak	13	13	100%	37.900	2.910
Bileren Antolaketa	15	36	42%	51.900	3.460
Osakidetzako Bileren Antolaketa	0	2	0	0	0
Ikastaroen Antolaketa	97	160	60%	76.628	800
IKERKETARAKO LAGUNTZAK					
Ikerketa Proiektuak	22	73	30%	833.031	37.870
LAGUNTZAK GUZTIRA	254	451		1.197.370	4.700
Interes Sanitarioaren Aintzatespena	41	53	77%		

IKASTAROEI BURUZKO ZEHAZTASUNA

Elkarteen Ikastaroak	21			13.600	650
Profesional Elkargoen Ikastaroak	47			38.140	810
Irakaskuntza Batzordeen Ikastaroak	28			24.390	870
Ikerketa Unitateen Ikastaroak	1			5.200	5.200
Osakidetzaren Ikastaroak	28	37	76%	24.390	870